

Ttiki-ttaka


euskaldunon aldizkaria, 31. Zk.



Aurkibidea

HERRIZ HERRI

| | |
|---------------------|----|
| Bilar | 4 |
| Eskuernaga | 6 |
| Lantziego | 7 |
| Lapuebla de Labarca | 9 |
| Mendabia | 11 |
| Oion | 13 |
| Samaniego | 14 |



ERREPORTAIAK

| | |
|---------------------------------------|----|
| 1, 2, 3, 4... 30! | 15 |
| Ezkutatu diguten euskaldunon historia | 24 |
| Arabako mahastiak | 26 |
| Korrika 2022 | 29 |



ELKARRIZKETA

| | |
|-----------------|----|
| Lander Etxedona | 32 |
|-----------------|----|



DENBORAPASAK

| | |
|--------------|----|
| Denborapasak | 34 |
|--------------|----|

NON GOGOA, HAN ZANGOA

| | |
|-----------------------|----|
| Non gogoa, han zangoa | 36 |
|-----------------------|----|

Azken bi urteak ez dira errazak izan inorentzat: hurbileko jendeak utzi gaitu, beste batzuk oso gaizki egon dira, beldurra, antsietatea, maskarak, txertoak bai, ez? Familiarekin bazkaria egingo dugu? Gabonak? Zalantza asko. Denok ginen erasotzaile eta erasotu aldi berean.

Aurretik aipatutako bizipenek ez dute inor berdín utzi; denok zerbaitetan aldatu gara, ziur asko, baina gurean bereziki jendea elkarrekin egotea galarazteak eta pertsonon arteko kutsakortasunak kalte handia eragin dio euskarari eta bereziki erabilerari.

Arabako Errioxan euskararen normalizazioan urteak daramatzagu lanean. Batzuetan aurrera eta azkar joan garen zantzua izan dugu, baina oraingoan atzera egin dugun susmoa nabarmena da. Negu Gorriak taldearen kanta ezagun batek esaten zuen “atzera zoaz edo aurrerantz goaz”, eta hain zuzen ere hori gertatzen zaio euskarari gure eskualdean, baina azken bi urteetan atzera eginez.

Jakina da hainbat pertsonarentzat ikastolak, eskolak, euskaltegiak eta abar direla euskara entzuteko eta erabiltzeko esparru bakarrak, eta horiek egon ezean, erabileraren ehunekoia izugarri jaisten da. Baten batek esango du komunikazioa online eginda nolabaiteko konponbidea izan daitekeela, baina denok dakigu, zuzenean elkarrekin aritu ordez online jardunda, pertsonen arteko komunikazioa asko jaisten dela: askoz gutxiago hitz egiten dugu, eta, jakina, euskarak ere aisialdia behar du gure gizartean benetan garatzeko.

Eta orain zer?

Euskarak gure arazo, erronka eta beharren zerrendan dagokion lekua hartu behar du. Lehentasuna izatera bueltatu behar da, gai garrantzitsua, gure egunerokotasunean berriro lekua izan behar du. Horren adibide **2022ko Arabako Errioxako Korrika** izan dugu. Gure eskualdean berriro ere herri guztiak martxan jarri dira, taldeak antolatu eta euskararen jaian parte hartu dute, eta berriro ere euskararen aldeko aldarrikapenek gure bide eta herrietan ikusgai egon dira.

Aurrekoaren ildotik, eta sortu den aldeko haizea aprobeztatuz, **Euskaraldia 2022** berriro antolatuko da datorren udazkenean. Beraz, datorren ikasturtean ere zereginik ez da faltako, eta, zalantzarik gabe, bitartean euskara lozorrotik ateratzen saiatu behar gara, gure herrietan haren presentzia zabaltzen, ahal dugun guztietan erabiltzen eta instituzioei euskaldun gisa ditugun eskubideak betetzeko eskatu behar diegu. Adreiluz adreilu hormak egiten diren bezala, berriro euskararen adreiluak jartzen hasi behar gara, gure herri eta eskualdean euskararen horma ahalik eta goren zein zabalen eraikitzeko.

Horma sendotze horretan lagunduko duen ez dakigun arren, aurtun badugu ospatu beharreko beste ekintza bat ere: euskararen hormaren sendotze lanetan 30 bete ditu Ttiki-ttakak! Oraindik noiz, non, nola eta gainerakoak zehaztu gabe baditugu ere, datorren ikasturtean, urtea amaitu baino lehen, prest izango dugu festa-eguna. Ea birus txar guztiak ahaztu eta euskarabirusak jotzen gaituen guztiok!

henniz henni

bilar.....

Estraperloa Gogoan



“Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko” esan ohi da, baina **“gogoratzen duen herria ez da inoiz hilko”** ere esan daiteke. Eta hilezkortasun hori nahi dute Bilarren; izan ere, bertako herritarrek lan handia egiten ari dira azken urteotan memoriaren alde, hots, izan zirena ez ahazteko, izan zirena gogoratzeko. Esaterako, oraingoan, helburu horrekin, **Bilar** eta **Bernedo** artean burutzen zen **Estraperloa**, legez kanpoko merkataritza jarduera, gogoratzeko ekimena antolatu dute. Nahiz eta pandemia aurretik horrekin hasi, pasa den maiatzaren 7ra arte ezin izan da gauzatu.

Beraz, gogoratu, bai, baina zer? Zer gogoratu nahi izan dute Bilarko eta Bernedoko herritarrek ekimenarekin? Beren arbasoek gerraostean egin behar izan zutena bizirauteko eta garaiko goseteari aurre egiteko, hain zuzen. Arrazionamendu kartilen garaia zen; urritasuna zen nagusi eta herritarrekiko kontrola ere nabaria zen. Beraz, garaiko zenbait herritarrek mendizerra zeharkatzen zuten elikagai bila, alde batera zein bestera, ezkutuan, estatu militarrek ezartzen zituen zerga bereziak ekiditeko. Besteak beste, Bilartik **olioa** edo **ardoa** eramaten zuten Mendialdera, eta bueltan **irina** edota **patatak** ekartzen zituzten.

Gainera, emakumeen garrantzia azpimarratu nahi izan dute. Gure iruditerian gizonezko estraperlista dugu, eta horrela zen askotan. Kasu horietan, gizona mendian barna joaten zen bitartean, emakumezkoek geratzen zitzaizen etxeko zama. Baina irudi horrekin apurtu nahi izan

Tfiki-ffaka 2022 / 30. urteurrena

dute, eta erakutsi digute hori ez zela emakumearen rol bakarra izan estarperloaren jardueran. Izan ere, **emakume estraperlistak** ere egon ziren; gizonezkoak baino gutxiago izango ziren agian, baina egon baziren.

Maiatzaren 7an, orduan, errepikatu nahi izan zuten garai hartako gizon-emakumeek egiten zuten bidaia. Bilartik atera ziren 80 bat lagun, zaldi eta guzti arbasoek egiten zuten bezala; **Avellanal** gainetik **Montortera** joan eta **Palo mendatea** zeharkatu ondoren, **San Tirsoko** jaitsiera egin eta Bernedora iritsi ziren **Okon baseliza** atzean utzita. Bidean Guardia Zibila ere aurkitu zuten, baina garai bateko isunak eta beldurra sentiarazi ordez, umore kutsua izan zuen oraingoan haien presetziak. Hori guztia berriro bizitzeaz gain, Bernedora iritsitakoan estraperloan parte hartutako zenbait adineko omendu nahi izan zituzten; horretarako aurrekua dantzatu eta mezu bat irakurri zuten. Egunari osotasuna emateko, nola ez, bazkari herrikoia eta beste zenbait ekintza burutu zituzten jai giroan.

Bilarko eta Bernedoko herritarrek garai batean bizi izandakoaz gain, ekimen honek erakutsi digu mendiak batu egiten duela, eta horrelako harremana beti izan dela alde bateko eta besteko herritarren artean, gure mendizerrak pasabide asko ditu-eta. Eta hori dena ez ahazteko, jarrai dezagun gogoratzen, deskubritzen, gure historia eraikitzen... **Eskerrik asko Bilar horrelako ekimenengatik!**



eskuernaga.....

Zerutik

Autoaren atea irekitzean, Eskuernagako burdin hesi beltzetan oraindik kalimaren arrastoak ikusten dira. Martxoaren 15etik maiatzaren 31ra arte, bi hilabete eta erdi pasa dira, baina aztarnak geratu dira gure hesietan. Harea gorriak tintatutako zeru gorri horretatik erori zen. Atmosferan zehar Saharako harea aleak etorri zitzaizkigun; zorionez, mahastiak elikatzeko onuragarria omen da. Ikuskizun “naturala” arraroa, deserosoa batzuentzat, interesgarria beste batzuentzat; zer ekarriko ote digu?

Apirilaren 31n elurra ere izan zen. Herria zuriz estalita agertu zen. Mahastietarako ere onuragarria. Herriko biziaren tenperatura geldoago geratu, eta errutina apurtu egin zen une batez: egunerokotasunari utzi behar, eta hobe da herrian geratzea.

Maiatzean ere, zerutik eguzkia erori zen... ia. Leherketa fotosintetiko eta uztailean bezalako beroa. Mahatsondoetako ernamuinak oso azkar hazi ziren, eta, bat-batean, ia egun batetik bestera, zelaiak marrazten zituzten andui-ilara marroiak orlegi bihurtu ziren. Badirudi Maiatzeko Zuhaitzak, San Andres gurutze zuriarekin, menditik herria zaintzen duela.

Eskuernagako zahar batek ere ez du gogoratzen hain hazkunde azkar eta oparoa. Honek ere lana aurreratzea dakar: udaberriko kimaketa, *espergura* delakoa... Orain buru-belarri San Joan egunera arte.


Herriko beste zahar batek zera esan zuen aurreko batean: *“mahastietan lan egitea ederra da, baita gogorra ere, beti zerura begira baikalde; beste baten menpe gaude”...* Agerikoa da 2022 urtea nobedadez beteta agertu zaigula: zeruan mugimenduak, lurrean aldaketak... Nola izango ote da aurtengo mahats-bilketa?

Pandemia jasan eta gero, gure gizartea ere bor-bor dago mugitu nahian, disfrutatu nahian; izan ere, pandemiaren ondoren, bizitza ere ezberdin ikusten dugu. Urte honek zer ekarriko?



Lantziego.....

Haurren Aurrean Helduok Heldu



Horixe izan zen **Kike Amonarrizek** Lantziegon emandako hitzaldiaren izenburua, *Gurasolagun* proiektuaren baitan. Ez bakarrik Lantziegon, Bastidan ere izan zen, eta Lapueblan ere entzuteko aukera izan zuten **Paula Kasaresen** eskutik.

Oso izenburu esanguratsua. Denok argi daukagu umeen aurrean eredugarri izan behar dugula. Zenbatetan entzun dugu aholku hori, mugikorraren erabilera dela eta. Amonarrizek hitzaldiaren bidez, ikustarazi nahi izan zuen hizkuntza ohiturekin ere gauza bera egin behar dela. Izan ere, hizkuntza irakaste hutsa ez da nahikoa ume euskaldunak sortzeko, hau da, etorkizunean euskal hiztunak izateko. Zenbatetan ikusi ditugu umeak edo gaztetxoak helduekin euskaraz, irakasleekin euskaraz, txakurrekin zein haur txikiagoekin euskaraz, baina haien artean erdaraz? Haurrek hizkuntza portaerak bereganatu eta imitatzeko dituzte, aipatutako horiek helduok izan ohi ditugun portaera berak dira eta. Horren haritik, Kike Amonarrizek hitzaldian bereizi zituen hizkuntzaren transmisioa eta hizkuntzan sozializazioa. Azken horrek hiztun taldeko kide bihurtzen du pertsona, tranmisio hutsak ez, ordea.

Horrez gain, soziolinguista ezagunak euskararen egoeraren argazkia erakutsi nahi izan zuen datuen bidez. Euskara bidegurutzean dago momentu honetan: ezagutza izugarri hazi den arren, erabilera ez da neurri berean hazi. Esaterako, EAEn 1981ean euskaldun kopurua % 21,9koa zen eta 2016an % 41,1ekoa. (Gure eskualdean aldea handiagoa da; hamar urtetan bikoitza baino gehixeago hazi da: 1996an euskaldunen kopurua biztanleriaren % 10,3 zen, 2016an % 22,6). Soziolinguistika Klusterrak egindako kale neurketako datuek, berriz, erabileran ez dute proportzio berean igoera erakusten: 1989an % 10,8koa zen erabilera, % 12,6koa 2016an. Datu orokorrak badira ere, gure eskualdean ere impasse egoera hori badago.

Horren aurrean zerbait egin behar dela argi dago, eta, orain, Amonarrizek esan bezala, erabakia hartzeko bidegurutzean gaude: marginaziorantz egingo dugu edo zerbait egingo dugu egoera alda dadin? Aurreko belaunaldiek lan handia egin zuten euskararen ezagutza zabaltzeko eta gure egunetara iristeko; orain guri dagokigu zerbait egitea erabilera areagotzeko. Ikusi dugu hizkuntza transmititze hutsarekin ez dugula aurrera egiten; beraz, euskararen sozializatu behar gara, umeek, gu eredu hartuta, hizkuntza ohitura horiek bereganatu dituzten eta etorkizunean ere euskararen parte izan daitezten.

Tfiki-ffaka 2022 / 30. urteurrena

Horretarako, kontuan izan zenbat eta erabilera eremu gehiago, hobe dela: familia, ikastetxea, aisialdia, kultura kontsumoa, lagun taldea... Gainera, beste hainbat estrategia ere beharrezkoak dira. Hona hemen Kikek aipatutako batzuk: lehenengo hitza beti euskaraz egin eta euskaldunekin euskaraz jarraitu. Horrez gain, euskaraz hitz egiteko espazioak sortu (gurasolagunek helburu hori du, esaterako), elkarrizketa elebidunak normalizatu, akatsak egiteari beldurra kendu... Horiek dira eman beharreko lehenengo pausuak hizkuntza ohiturak aldatzeko.

Gure eskualdean ahalegin handiagoa egin behar da horrelako strategiak aurrera eramateko, baina ezinbestekoak dira; gure ondorengoek etorkizun euskalduna izatea nahiko badugu, bidegurutze honetan norabide egokia hartu behar dugu eta eredu izan; ardura helduoi dagokigu. Gogoan izan Amonarrirek azaldutakoa: **haurren aurrean, helduok beti heldu.**



Lapuebla de Labarca.....

Amets Arzalluz, Idazle Bertsolaria

Apirilean Amets bertsolariaren bisita izan genuen Lapueblan. Guregana etortzearen arrazoa bere liburua “**Miñan**” <http://susa-literatura.eus/liburuak/narr131> izan zen. Assa Ikastolan DBH 2. mailan **inmigrazioari buruzko proiektu bat** lantzen ari gara. eta egiten diren lanen artean Arzallusen liburuaren irakurketa eta lanketa atal garrantzitsua da. Horregatik, berarengana jo genuen, eta gurekin izan genuen egun osoan zehar.

Goizean ikasleekin hitzaldi-solasaldia izan zuen, bere lanari buruzko gorabehera eta xehetasun guztiak kontatuz. Liburua Ibrahim Balderekin batera argitaratu du, azken honen bizipen latzetan oinarritzen delarik. Bere jaioterritik, Gineatik, Irun arteko bidaiaren xehetasunak kontatzen ditu lehenengo pertsonan.

Eguerdian Assa Ikastolako zenbait irakaslerekin batera **Txutxiren** Bodegan bapo gelditu zen gure bertsolaria, Arabako Errioxako ardoari muzin egin gabe elkarrizketa atseginen artean. Arratsaldean, aldiz, hitzaldia herriari zabaldu zitzaion, eta bertan helduek parte hartu zuten. Arzallusen eleberriaren zehaztasunak: nola sortu zen, zein egoeratan... Gordina bezain hunkigarria izan zen hitzaldia. Horrez gain, esan behar da egun bere lana hartzen hasi den oihartzunaz ere ohartuta zegoela, arazoa konpontzen laguntzeko tresnatzat hartzen duelarik bere liburua.





Assa Ikastolak dagoeneko 42. urtea beteko du; mende erdirantz abiadura bizian eta, jakina, bertako langile batzuk ere adinez aurrea doaz bizilegeak agintzen duen moduan. Dagoeneko aurreko urte batzuetan erretiratu dira bertako langile batzuk: **Patxi Zabaleta, Mertxe Santamaria, Nekane Amondarain** eta aurten **Yolanda Pascual**.

Baina aurtengo ekainean ikastola hasi zenetik bertan lanean aritu den andereñoak erretiroa hartuko du **Amaia Visa**k Assa Ikastolan 42 urte lanean egon ondoren. Hori dela eta, gainontzeko guztiak bezala, ondo merezitako atsedeen eta denbora izango ditu ekainetik aurrera, baina aurretik etxerako lanak bidali dizkigu, argazkian ikusiko duzuen bezala.

Animatu eta hartu parte!



mendabia.....

Mendabian Kultur Astea. Aurten Bai!



Pandemia zela eta, azken mende laurdenean ospatu den Mendabiako Kultur Astea burutzeko aukerarik ez genuen izan azken bi urteetan, baina aurten bai!

Mendabiako Euskara Taldearen 25. urteurrena ere debekuz beteriko garaian bizi izan genuen, hau da, nahi eta merezi bezala ez. Hori bai, kanta eta bideo bat sortu eta sare sozialetan zabaltzeko aukera izan genuen. Esteka honetan dago ikusgarri:

<https://www.youtube.com/watch?v=ejsK5lxQvVc>

Parte hartze handia izan zuten kantak zein bideoak. Mendabiako **The Phailons** taldeak sortu zuen musika eta laguntzaile asko izan ziren tartean: ETSko **Iñigo**, Sinai taldeko **Ivan**, Corrosive taldeko **Xabi**, Sukarra taldeko **Iosu** eta abar

Handia eta zabala aurtengo Kultur Astearen egitaraua izan da, zaletasun desberdin asko asetzeko prestatua. Hala, bertan izan ditugu. **Antzerkia** (Harri mina obra); **Eduardo Aznarren** hitzaldia (Euskara Ebro bailaran); film laburrak; Mendabiako Naroak, ikasten ari den unibertsitateko lagun batzuekin batera, euskararen egoerari buruz sorturiko dokumentala (400 ordu); eta, azken egunean, pilota-partiduak, herri-kirolak, **Bixente trikitilariarekin** txikiteo musikatua, herri bazkaria, bingoa, afari-merienda, musika...

Aurten bai, aurten gustura geratu gara elkartekoak, eta gustura egoteko beste arrazoi bat ere badugu; izan ere, lokal bat hartu eta ireki dugu, euskara bultzatzeko xedearekin. **Egurra!**

Tfiki-ffaka 2022 / 30. urteurrena

MENDABIAKO ULTUR ASTEA

MAIATZAK 20 MAYO

19.30h
 Antzerkia | Teatro
HARRI MINA
 (15 urteak)

MAIATZAK 21 MAYO

19.30h
 Urturaren "Talo" eta "Talo del Ayte"
EL EUSKERA EN EL VALLE DEL EBRO
 Eduardo Añar (teatro) / (15 urteak)

MAIATZAK 22 MAYO

19.30h
 Lasada eta el "Talo"
LADURMETRIAK: EORTZUNEVALDES
 (15 urteak)

MAIATZAK 23 MAYO

12.00h
HERI KIBOLAK
 PARTE HARTZALEA
 PARTIZIPATIBO


12.30h
POTEA BIKENTE TA BERE
 ANKOROKARAKI
 POZKORUN BARRI ETZU
 AKROZOMA
 (15 urteak)

18.00h
SADURU HERRIKOIA
COMIDA POPULAR
 Sagarduzueñata (15€)
 Urturaren "Talo" eta "Talo del Ayte"
 (15 urteak)

18.00h
ESKU PILOTA
LOTA MANDU
 (15 urteak)

MAIATZAK 24 MAYO

19.30h
COMIDA POPULAR
 Sagarduzueñata (15€)
 Urturaren "Talo" eta "Talo del Ayte"
 (15 urteak)





Adarra jo, harpa jo, iseka egin,

trufatu... modu asko ditu euskarak norbaiti ziria sartzea adierazteko, baina, gaurkoan ez dugu horretaz hitz egingo. Adarra jotzen, literalki ulertuta, ari baitira Oionen zenbait lagun. Hau da, adarra jotzen dute eta jotzen diote jendeari, baina inori ez diote barrerik egiten. Zein posturatan jarrita jotzen duten ez digute argitu; izan ere, aukera bat baino gehiago dago horretarako: etzanda, makurtuta, belauniko, zutik, eserita... Baina ez da postura jotzen dutena, ez zuzen, ez okertuta, ez zeharka, ez aldamenka, baina bai azken horren sinonimoa: alboka. Bai, txantxak alde batera utzita, konta dezagun zertan ari diren Oionen 2021eko urritik aurrera

astehenero. Egia esan, adarra bikingoek jotzen zuten, euskaldunon alboka animalia adarrez eginga bai, baina zerbait gehiago da adar hutsa baino; gainera, gaur egun, alboka asko, animaliekiko errespetuz, zuhaitz egurrez egiten dira, dela gereziondoa, dela gaztainondoa... Baina, adarretatik joan eta galdu gabe, etor gaitezen harira.

Toño Gainzarainek alboka jotzen ikasi nahi zuen, eta irakaslea aurkitu zuen: **Otazuko Osés (Semi)**. Horrela bada, jende gehiagorengana iristeko ikasteko proposamena Oiongo **Irule** elkartekoekin harremanetan jarri, eta elkarteak zabaldu egin zuen izen-ematea. Sei lagunek eman zuten izena, eta hiru ikasleko bi taldetan banatuta, urritik hasita, astehenero ari dira ikastaroan Osesekin. Ordubeteko saioak izaten dituzte, eta, jakina, nork bere etxean edo dena delakoan jarraitu behar izaten du praktikatzeko, ez baita erraza. Bi zailtasun aipatzen dituzte parte-hartzaileek: bata, musika jakitea, partiturak irakurri behar baitira. Eta, bestea, arnasketa; arnasketa zirkularra erabili behar da alboka jotzeko, hau da, aldi berean arnasa hartu sudurretik eta ahotik bota. Musika ez dakitenek bi zailtasun, musika dakitenek bakararra, arnasarena, baina langintza gogorra azken hori, txistu eta abarrekin ez baitu zerikusirik. Ikasten ari den batek aipatu digunez, eta lehen aipatu dugun bezala, inori ez diote barrerik egiten, baina eurek barre piloa egiten dute; hala ere, aipatu digu Lorek lan gogorra dela arnasa etenik gabe hartu eta botatzea, eta gogorra, era berean, etxekoentzat. Loreren katua kirioak dantzantartzen omen da hark alboka esku artean hartzen duen bakoitzean, non ezkutatu ez dakiela.

Datorren ikasturtean ere jarraitzeko asmoa dute, baina, egin duten aurrerapena ikus dezagun, Irulek ikasturte amaieran antolatzen duen ekitaldian abesti bat joko omen dute ikasten aritutako Arabako Errioxako albokari berriek. Entzun eta ikusteko irrikan gaude.

samaniego.....

Samaniego Herria Esnatzen...



Pandemiaren lozorro eta aitzakia guztien ondoren, aurrera mugitzen hasteko garaia heldu da!!! Badirudi jendea gogoz dagoela. Pasa den Aste Santuan Covidaren aurreko egoeran bezala, jende andana bildu zen aspaldiko kaleko askatasuna berreskuratuz eta batetik bestera ibiliz. **Mendekoste Festak** ate-joka ditugun honetan, jendea gogotsu dago. Herriarekiko lotura daukaten kanpotarrak hurbiltzeko prest dira. Oraindik ere adinekoak tentuz dabilta, baina bi urte lehenago “umeegiak” zirenak grinatsu ditugu, gogoratzen ez direlako edo behar bezala bizi ezin izan zituztelako herriko jaiak.

Horientzat **Gazte-Lekua** jarri da martxan, sarrera kontrolatua duen aisiarako espazioa gure herrian. Eraikin berria ere badago erabilgarri; ekimenak, zereginak eta jarduerak antolatu behar ditugu gutxinaka Samaniegok izan duen aurreko urteetako jende partehartzaile kopurua berreskuratu ahal izateko.

Urteetan gabiltza **Futbol zelaia** izateari utzita, belar artifiziala txikituta. Aurten berritzeko laguntza nahikorik lortu ez bada ere, hasiak dira **frontoi aldean berrikuntzak** egiten: aldagela berriak izango ditugu hurrengo denboraldirako.

Ukraniar sendi bat etorri zaigu gerratik alde eginda. Egoera berrira moldatzeko ahaleginetan ditugu, eta, horretarako, euren kultura eta gurearen artean talka egon ez dadin herri guztiaren ahalegina behar da. Hasieratik bertatik ditugu Samaniegoko ohitura eta hizkuntzez jabetzen saiatzen, herrian gizarteratzeko. Ezagutuz gero, erraz egin dakieke tokia gurean.

Memoriaren Parkea dugu Samaniegoko aurtengo beste berritasuna, eta sufritutako alderdi guztiak kontuan izatea beharrezkoa da, baina, era berean, ezin ditugu ahaztu babes beharra duten gaur egungo bestelako ekimenak, egoerak eta pertsonak. Horietako bat euskara. Viana eta **Arabako Errioxako KORRIKA** izan genuen oso babes eskasarekin gure herrian. Datorren neguan **Euskaraldia** etorriko da. Jendearen partehartzea ezinbestekoa da, bestela etorkizuneko egun batean norbaitek inauguratu beharko du Euskararen Memoriarako parke bat!!!

Bizirik daukagunean erabili behar dugu, gerora damutu eta omenaldiak egiten ibili aurretik.

Gora Samaniego euskalduna!!!



Hogeita hamar, bai, hogeita hamar urte beteko ditu Ttiki-ttaka elkarteak, zonaldeko euskaldunon elkarteak.

1991 urtean zenbait ikastolatako irakasle batzuk, euskaltegiko beste batzuk, euskaltegiko ikasle ohiren bat... euskararen egoeraz berriketan hasi eta ondorio batera iritsi ziren: ikastolek eta euskaltegiak euskaldunak sortzen zituzten, baina erabileran ez zegoen aurrerapausorik, eta,

ondorioz, euskaldundutako horien euskara herdoildu egiten zen. 1992ko maiatzean Kripanen Arabar Errioxako ikastolen eguna ospatu zen, eta egun horretan “Errioxan euskaraz” izenburua zuen papera eskuz esku eta ahoz aho ibili zen.

Honelaxe zioen:

ARABAKO ERRIOXAN EUSKARAZ

Orain dela 15 urte Arabar Errioxan kasik euskaldunik ez zegoela esan liteke. Halere, urteen joan etorriarekin batera, egun 100 euskaldun inguru bagara, gehienak ikastoletatik edo euskaltegitik ateratako gazteak.

Ezin uka hau lortzea aurrerapauso handia dena, baina badago eskualde honetan hutsune nabarmen bat euskaldun berrion kontra jotzen duena. Alegia, ingurua, harremanak eta bizitzako esparru guztiak gaztelaniaz izaten dira, eta, hórrela, oso zaila egiten da ikasitako euskara erabiltzea eta mantentzea. Are gehiago, askotan ez erabiltzearen ondorioz hizkuntza erdi ahaztu edo kaskartu egiten zaigu eta alferrikako bihurtu egindako lan guztia.

Ttiki-ttaka 2022 / 30. urteurrena

Hori guztia ikusita, bertako zenbait euskaldunek lau bilera burutu ditugu nolabait egoera honi aurre egingo liokeen talde bat osatzeko asmoz, azken urteotan herri askotan “Arrasate Euskaldun Dezagun” bezalako taldeak sortu diren bezalaxe.

Talde honen helburuak hauxek lirateke:

- Ezagutzea nortzuk eta zenbat euskaldun garen Arabar Errioxan.
- Euskararen presentzia esparru guztietan bultzatzea.
- Gure artean euskara erabiltzea ziurtatu eta zenbait ekintza eta jarduera kultural antolatu: aldizkari bat, irratsaioa, hitzaldiak...

Eta nolako taldea nahi dugu? Guretzat hiru izango lirateke ezinbesteko baldintzak:

- **Euskalduna:** taldeak euskaraz funtzionatuko luke. Partaideek ulertu eta hitz egiten moldatu beharra dute.
- **Independientea:** euskara izango da bilduko gaituen elementu bakarra; hortaz, ez genuke izango lotura organikorik inolako alderdi edo elkarteekin.
- **Jokaera zabalekoa:** arrakasta irekitasunez eta zabaltasunez jokatzeko datza; beraz, jokaera eta pentsaera askotako jendeak izango luke lekua.

Ttiki-ttaka elkarte

Horrelaxe bada, euskara elkarte bagenuen, Ttiki-ttaka. Helburua garbia zen: Arabar Errioxan euskararen erabilera sustatzeko pausuak ematen laguntzea. Eta lanari ekin genion.

Lehenengo eta behin euskaldunon errolda gauzatu genuen, 150 euskaldun baino gehiago kontatu genituen 18 urtetik gorako artean. Bazkide egiteko aukera luzatu genuen, eta 40 inguru egin ginen. Euskaldunok elkar ezagutzeko helburuarekin trikiti-afari, bertso-afari... egin ziren; euskararen presentzia areagotzeko xedearekin txirringa martxa antolatzen hasi ginen, aldizkari bat kaleratzen hasi ginen...

Harrezkero, gauza asko egin ditu Ttiki-ttakak: aldizkaria 31. alera iritsi da, ekitaldi pilo gauzatu dugu (hitzaldiak, bertso-afariak, antzerkiak, dantzaldiak...), gazteek ere ikastaro dezente izan dituzte (txalaparta, pandero, dj, graffiti...), begirale titulua lortzeko ikastaroak ere antolatzen ditugu. Arabar Errioxako euskara eguna (gaur egun EKA, euskal kultur asteburua) urte pila batez antolatu dugu herriak txandakatuz...

Hala ere, beti dago hobetzea, eta Ttiki-ttakan hausnarketak eten gabe gauzatu ditugu. Elkartearen 10. urteurrenean, zonaldeko euskararen diagnosis gauzatu genuen. Ondorengo testu hau da AMIA fitxa (Ahuleziak/Mehatxuak/Indarguneak/Aukerak) betetzeko eskatu zitzaienei emandako dokumentua:

Euskararen diagnosis

Nazio Batuen Erakundeak dio, egun, munduan dauden 6000 hizkuntzetatik erdiak desagertzeaz daudela, euskara barne.

Euskara Hegoaldean desagertzeko arriskuan dago eta Iparraldean desagertzeko arrisku larrian. Desagertzeko arriskua haurren % 30 baino gutxiagok ikastean aurrikusten du Nazio Batuen Erakundeak.

16-24 urte bitarteko euskaldunak Iparraldean % 11 dira, Nafarroan ere % 11 eta EAEn % 33. Unescok honako arrazoiak ematen ditu hizkuntzak desagertzeko:

- Etxean transmisiorik ez egotea, kasu honetan, belaunaldi batean edo bitan galdua dago hizkuntza.
- Komunitate bateko hizkuntzak bestea zapaltzea, ekonomikoki eta politikoki indartsuagoa delako.
- Agintariek ez babestea hizkuntza gutxitua.

Bestalde, Unescok hizkuntza diskriminaziotzat jotzen du hizkuntzak garrantziaren arabera sailka daitezkeelako ustea, hiztun gehiago dituelako, bata bestea baino aberatsago eta modernoago delako...

Honekin batera eleaniztasunaren garrantzia azpimarratzen du Unescok, izan ere, hizkuntza bat galtzea komunitate baten mundu ikuskerara bat galtzea da, eta garbi ikusten da hiztun eleanitza jarreretan ez dela elebakarra bezain zurruna, hau da, toleranteagoa dela eta adimen azkarragoa duela memoria gehiago erabiltzen baitu.

Dena dela, hizkuntza bat salba daitekeela azpimarratzen dute Nazio Batuen Erakundeak eta Unescok hizkuntza politika egokia gauzatu.

Garbi dago euskara ofiziala izan arren, EAEn normalizazioa astiro doala, astiroago Nafarroan eta larri dagoela Iparraldean.

Garbi dagoen bezalaxe inmigrazioak eta uneko agintaritzaren politikoak baldintza dezakeela lortutako guztia.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailak 1998an hirurogei urte barru euskal hiztunen kopurua zein izango den simulazioa bat gauzatu zuen, 1991tik 2051ra hain zuzen ere; bertan, hiru hipotesi jasotzen ditu:

- oinarrizkoa (orain arte bezala jarraituz) % 30 euskal hiztun.
- baikorra (oraingo prozesua azeleratuta, kasurik onenean) % 45.
- ezkorra (oraingo egoerak beherakada izanda) % 22 euskal hiztun.

SEI elkarteak, Euskal Soziolinguistika Institutuak, 1989tik 2001era eginiko kale erabileraren neurketak erakusten digu Euskal Herrian eman beharreko igoera mantsotzen ari dela eta Araban jaitsi egin dela % 4tik % 3ra.

Arabar Errioxa

Arabar Errioxan euskararen inguruan dagoena azken 25 urteotan eginikoa da. 1981ean % 0,9 ziren euskaldunak, eta % 0,9 ia euskaldunak. 1996an, berriz, % 10,2 ziren euskaldunak eta % 8,8 ia euskaldunak, hau da, 1981ean % 98,2 ziren erdaldun elebakarrak eta hamabost urtera % 81.

Garai batetik hona, aurrerapausoak eman dira: lan batzuetarako beharrezkoa da euskara jakitea, leku publikoetako errotulazioak elebidunak dira, bertako administrazioak zenbait laguntza ematen du...

Nabarmena da aurrerapausoa, baina oraindik ere % 81 dira erdaldun elebakarrak. Falta da errealitateari aurre egingo dion bertako hizkuntza politika egokia.

Egun, euskararen sustapena ikastola eta euskaltegiaren gain dago.

Eta hauexek Arabako Errioxako 20 bat lagunen iritzietatik orduan jasotakoak:

| AUKERAK | MEHATXUAK |
|---|---|
| Ikastolak finkatuta daude ekonomikoki eta ikasle kopuru aldetik. Bestalde eskoletan pixkanaka B eredu gora. | Aurrerapausorik ikusi ezean, hainbat jende desanimatu eta desmotiba daiteke. |
| Pixkanaka gero eta gazte gehiago euskaldun aterako dira. | Egoera politikoak ez du laguntzen, eta baliteke euskararen kontrako jarrerak indar handiagoa hartzea. |
| Hainbat udaletxetan jarrera irekia dute euskaren aurrean eta udal mailan aurrerapauso eta iniziatiba berriak egin daitezke. | Euskara gazteen artean balio sinboliko hutsa duen zerbait bihur daiteke. |
| Kuadrillan ere jarrera irekia dute, eta zerbait egin daiteke. | Ikastoletan euskara ikasi duten gazte askok denborarekin gehiena ahaztu egingo dute. |
| Berberanan eta Irratian ere jarrera ona dute, beraz, euskararen presentzia areagotu daiteke. | Gizartean dauden joerek kontsumozko aisialdira bultzatzen dituzte gazteak, gero eta jarrera indibidualistagoak agertuz. Ez dago ia asoziazionismorik. |
| Gizarteko hainbat sektoretan aurrerapauso handiak egin daitezke: instituzioetan, denda, taberna, kultura elkarte, kirol talde, enpresetan, aisialdian orokorrean... | |

Tiki-tika 2022 / 30. urteurrena

| | |
|---|---|
| Guraso gazteak, hurrekiko transmisioa euskaraz egitera animatu. | Administrazioak, oro har, ez du betetzen dagokiena eta ez dute inolako euskararen plangintzarik. |
| Azken 25 urteotan ikastoletatik pasatu duten masa soziala. | Haur asko daude oraindik euskaraz ia ezer ez dakitenak. |
| Azken urteetan euskaltegitik pasatu den jende guztia. | Hezkuntzak ez du bermatzen euskararen erabilera eta ezaguera. |
| Laster izango dira ikastoletatik irtendako lehenengo gurasoak. | Enpresetan euskara sartzeari ez zaio inolako errentagarritasunik ikusten. |
| | Euskara ez da behar hemen bizitzeko. |
| | Euskararen kontrako jarrerak ere badaude. |
| | Askok diskriminaziotzat jotzen dute euskara hutsez jardutea. |
| | Euskara ez da lehentasunezkoa euskalgintzaz aparteko talde eta abarrentzat. |
| | Gizartea ez da kontziente euskararen egoera larriaz, inoiz baino hobeto egon arren. |
| | UNESCOk euskara desagertzeko zorian dagoela dio. Eusko Jurlaritzak egindako aurreikuspen baikorrenean EAEn 2050ean, % 45 izango gara euskaldun. |
| | Gazteen aisialdia Errioxan (Logroño, Haron edo Najeran). |
| | Eskualdeko herrien sakabanaketak, logistika arazoak sortzen ditu edozer antolatzeko eta hizkuntza komunitateak sortzeko. |

Ttiki-ttaka 2022 / 30. urteurrena

| INDARGUNEA | AHULEZIA |
|---|---|
| A) EZAGUTZA-ERABILERA | A) EZAGUTZA-ERABILERA |
| Euskararen ezagutzan aurrerapen handia azken 20 urteotan. | Erabileran aurrerapauso nabarmenik ez da eman. |
| Hezkuntzan, Lapueblan, Lantziegon, Samaniegon, Mainuetan, Eskuernagan eta Bilarren ia ume guztiak D ereduan, besteetan kopuru igotzen B eredurantz. | Ikasle askok ez dute gaitasun nahikorik lasai eta gustura euskaraz hitz egiteko. |
| Euskaltegietan gazte eta heldu kopuru garrantzitsuak ikasi du eta ikasten du euskara, eta batzuk euskaldun bihurtu dira. | Eskoletan ikasten duten haurrak DBH edo Batxilergora joaten direnean, A ereduan bukatzen dute. |
| Euskara Elkarte bat 10 urte bete dituen. | Hiztun komunitate edo sare gutxi sortu dira, batez ere, gazteen artean (euskaraz hitz egiten duten gazte kuadrilak falta dira). |
| Aisialdiko bi esperientzia positibo: Topalekua Lapueblan eta Udaleku irekiak zenbait herritan. | Ez dago Lanbide Heziketa eskaintzarik euskaraz. |
| Ttiki Ttakak urtean zehar euskarazko zenbait kultur ekitaldi antolatzen ditu. | Eskualdeko kirol eta kultur- eskaintza erdalduna. |
| EITB eskualdean ere hartzen da. | A eta D ereduak eskainita haurrak erdibana Oionen (D eredia gailenduko zela ematen bazuen ere). Hazkuntzarik eza. |
| Eskualdeko jende askok parte hartu du modu batera edo bestera euskara aurrera ateratzen. | Haurrek ez dute helduen erreferentziarik. Gurasoek seme-alabei euskaraz egin arren, euren arteko hizkuntza gaztelera da; ondorioz, haurrek balioa gaztelarari ematen diote. |
| Euskaldundu diren heldu askok hurrekiko transmisioa euskaraz gauzatu dute. | |
| Euskaltegi eta ikastolen arteko koordinazioa. | |
| Zenbait herritan Euskara Elkarteak sortu dira (Eskuernaga/ Lantziego). | |

Ttiki-ttaka 2022 / 30. urteurrena

| | |
|--|--|
| Ikastoletako hainbat ikasle ohik ikasketak euskaraz jarraitu dituzte, eta euskara maila txukuna lortu. | |
|--|--|

| B) JARRERA SOZIALA-INSTITUZIONALA | B) JARRERA SOZIALA-INSTITUZIONALA |
|---|--|
| Euskararekiko jarrera negatibo gutxi herri gehienetan eta askok plus bat bezala hartzen dute. | Euskararen aldeko lan-zama handiena gutxi batzuek asko emanda egiten da. |
| Herri gehienetako kaleen izenak eta festetako egitarauak elebidunak. | Komertzio eta Tabernak erdaldunak erabat. |
| Nahiz eta gurasoek euskaraz ez jakin, umeak D ereduan matrikulatzen dituzte. | Euskararen erabilera sustatzeko ez dago ez plangintzarik ez eta baliabide ekonomikorik. |
| | Arabar Errioxan euskararen baliagarritasun falta; maila sinbolikoan bakarrik gelditu da. |
| | Eskualdeko instituzioetan, euskararen presentzia oso baxua, eta ez da euskararen agerpenik zaintzen. |
| | Gizarteko alorrik esanguratsuenetan, euskararen presentzia eskasa. Publikoetan: turismo bulego, udaletxe... Pribatueta: taberna, denda, kirola, erlijioa,... |
| C) PRODUKZIOA | C) PRODUKZIOA |
| Ttiki-Ttaka aldizkaria. | Euskararen inguruan zabaldu beharreko diskurtsoan zalantza asko dugu: D ereduak ez du bermatzen erabilera, B ereduak ez da egokia, euskara gorabidean doa... |
| | Herri gehienetan ez dago aukerarik euskal prentsa, aldizkari, liburu edo musikaririk erosteko. |

Elkartearen osaera eta erronka berriak

Azterketa horren aurrean, elkartearen helburuak ez zuen aldaketarik, hau da: euskararen normalizazioa zen xedea: euskarak hizkuntza normalizatu batek bete ohi dituen funtzio guztiak esparru guztietan betetzea: familia, lana, harremanak... Jakina, garbi zegoen eta dago normalizazioa prozesu luze baten ondorio izango dela, euskaldunok gero eta funtzio gehiago eta gero eta esparru gehiagotan betetzetik etorriko dena. Prozesu horretan, ordea, gizarteaz

Ttiki-ttaka 2022 / 30. urteurrena

gain, administrazioa sartu behar genuen. Horrela lortuko baikenuen euskaldun kopurua haztea, euskaldunok behar ditugun zerbitzuak antolatzea eta erabilerari tokia egitea.

Elkartearen osaeran ere aldaketa bat egin beharra ikusi genuen. Orain arte elkarteko bazkideen esku zegoen egiten zena, baina euskalgintza ez ginen gu bakarrik, eta euskalgintza osatzen zuten guztien koordinazioa beharrezkoa zen. Horrela bada, handik aurrera, Ttiki-ttaka elkarteak norbanako bazkideek ez ezik, ikastola guztiek, euskaltegiak eta momentu hartan euskalgintza helburu zuten hiru elkartek ere osatuko zuten (Matraka, Eskuernagan; Sorgintxulo, Bilarren; eta Argioilar, Lantziegon).



Erronkak:

- Administrazioak euskararekiko duen erantzukizuna bere gain har dezan eragin.
- Euskararen ezagutza sakondu eta areagotu.
- Euskararen erabilera sustatu, haur, gazte eta helduei aukerak eskainiz.
- Gizartearen euskararen aldeko jarrera bultzatu.
- Merkataritzan, hedabideetan eta lan munduan euskararen presentzia areagotu.
- Euskal Herri mailan gauzatzen diren kanpainak (korrika, autobusak ikastolen jaietara...) inguru honetan antolatzeko koordinatu.

Lan-esparruak:

1. Bakoitzak bere zentroetan: dela ikastola kanpoko jardueretan; dela ikastola barruko erabilera areagotu nahian. Zentro bakoitzeko bazkideen jarrera eta jokaera hobetzeko asmoz...
2. Herri bakoitzean: ikasleekin, ikasle ohiekin, ikastola eta euskaltegiko ikasleak harremanetan jarri, herritarren inplikazioa eta konplizitatea lortu...
3. Eskualdean edo zonaldean: gure zentroak harremanetan jarri. Euskara Eguna, kanpotik datozen kontuak (Korrika, Ikastolen festetako autobusak antolatu, ...).
4. Ttiki-Ttaka Topaguneko bazkide ere bada; beraz, Euskal Herri mailako ardura ere badugu, euskaltzale elkarte garen aldetik.

Lan-ildo eta erronka horiekin hasi zen Ttiki-ttaka lanean, eta halaxe dihardu gaur egun. Lehenik eta behin, administrazioari bere egitekoaz elkarteak zuen ikuspegia jakinarazi zion, eta bilera askoren ondoren, bai Kuadrillakoekin eta bai Foru Aldundikoekin, Arabako Errioxarako euskara

Tiki-taka 2022 / 30. urteurrena

teknikari bat izendatu zuten eta euskara-zerbitzua abian jarri. Harrezkero, 2010 urte ingurutik, euskara teknikariak elkartearen bileretan parte hartu du, eta denon artean urtez urteko planak egin eta gizartea osatzen duten sektorez sektorekako (hezkuntza, helduen euskalduntzea, administrazioa, sare sozialak, komunikabideak, aisia, merkataritza, lan-mundua...) ekintzak burutu dira. Urte hauetan, hamaika proiektu jarri dira abian, hamaika kanpaina egin, hamaika ekintza haur, gazte eta helduentzat... Aipagarrienetakoak mintzalagun, gurasolagun, gazte-batzordeak, Kanean bizi-bizi (Arabako Errioxan eskaintzen den aisialdia euskalduntzeko proiektua), baina askoz gehiago ere bai: begirale euskaldunak lortzeko ikastaroak, Irakurri eta Gozatu kanpaina, Laburbirak urtero, aldizkariarekin jarraitu...

Hori guztia berriagoa da, eta, aurreko aleetan azaldu dugunez, ez dugu errepikatuko informazioa, denok badakizuelakoan. Orain, 30. urteurrena ospatzea dagokigu. Hogeita hamar urte hilerok elkartzen, hausnartzen, hobetzen... egiten. Ospa dezagun, bada, guztiok, elkartean ari direnek, aritu direnek, proiektuetan parte hartutakoek, ekintzetan ibilitakoek, aldizkarian idatzitakoek... Oraindik datak eta egitaraua zehazteko badago ere, 2022ko azaro inguruan iritsiko zaigu ospakizunetarako garaia, eta zuk izango duzu horren berri, zain izango gaituzu eta.



Ezkutatu Diguten Euskaldunon Historia



Bere historia ezagutzen ez duen herriak ezin izango du bere etorkizunaren jabe izan. Milan Kunderak zera esan zuen: *“Nazioen likidazioa egiteko, lehen-lehenik euren memoria kentzen zaie. Haien liburuak, kultura, historia suntsitzen dira. Gero, norbait etorriko da, eta beste liburu batzuk idatziko dizkio; beste kultura bat ezarriko dio gainean, eta beste istorio batzuk asmatuko dituzte. Orduan, nazioa zer den eta zer izan den ahazten hasiko dira nazio horretako biztanleak”*.

Euskal Herrian, Nafarroan, ezagutzen dugu joko hori, nahiz eta gu horren defentsan oso azkar ez ibili. Kontatu ziguten, eta ia sinestu ere bai, Nafarroak, Euskal Herriak, Gaztelarekin bat egin zuela bere borondatez; itsasaldeko arabar, gipuzkoar eta bizkaitarrak nafarrak izatetik banandu ginela errege haiek nahi ez genituelako eta Gaztelakoak askoz aurreratuagoak zirelako; eta euskarak atzera egiten duela gure utzikeriagatik.

Euskal nafar jendearen eta gure lurraldearen historiaren kontakizuna berreskuratzekeo, **Nabarralde** hainbat baliabide pedagogiko lantzen ditu. Bata, Nafarroako ikastolek eskatuta egindako on-line ikastaroa (formatu presentzian ere eskaintzen duguna); bestea, gure iraganeko gai nagusietako bati buruzko erakusketa da, euskal estatu independente bati buruzkoa: **Habitat** erakusketa.

Testuinguru horretan antolatu genituen Oiongo Udalaren laguntzarekin “Bazterra” aretoan jarritako erakusketa eta bisita gidatuak. “Giza habitat ezkutatua” izena duen erakusketak gure historia erakusten digu, herri baten oroimenetik abiatuta Nafarroako erresumaz, euskaldunok inoiz eraiki dugun instituziorik zabalenez, euskal estatua ere deitutako horretaz hitz egiten dugu. Non eta nola sortu zen, zer garapen izan duen eta berau defendatzeko euskal lurralde osoan eraiki ziren gazteluez modu oso grafikoan aritu ginen.

Oionen, eta Arabar Errioxan, oro har, lehen aldiz antolatu da ekitaldia. Ekologian erabiltzen den “habitat” kontzeptutik abiatu eta ezkutuan egon den gizakiaren hizkuntza, kultura, legeak eta erakundeak gehituta definitzen dugu giza habitata. Erdi Aroko Nafarroako Erresumaren konkistaren mugarrak erakusten dira: 1054 Atapuerkan; 1200ean oraingo Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia; 1512an oraingo Nafarroa Garaia eta Beherea (Nafarroa Behereak independentea jarraitu bazuen ere 1620ra arte). Aro modernoko burugabetze prozesuak erakusten dira amaieran, Frantziako lehen Iraultzarekin (1789) zein Foruen defentsarekin bi Karlistaldietan. “Foruen defentsa nazioaren defentsa da” baieztatzen dugu.

Tfiki-ffaka 2022 / 30. urteurrena



Ondarearen eta gure historiaren kontakizuna aldarrikatzen dugu. Beste estatuetan non nahi ikusten ditugu gazteluak, beren iraganaren ondare eta ikur. Non dira gureak? Sonsierran, Araban, ere baditugu hamaika toponimo, izanaren lekuko. Iñaki Sagredo Gardek 'Navarra: Castillos que defendieron el Reino' liburu bilduman azaleratu ditu horietako 258tik gora. Horretarako artxibo lanak, hegaldiak eta indusketak uztartuz egindako lan bikainari esker bilduma zoragarria dugu. Erakusketaren panel batean azaltzen dira denak.

Estaturik gabeko Herria garelako diogu sarri. 258 gazteluen aztarnek eta toponimiak euskal estatuaren presentzia erakusten digute. Eta ez dugu sekula gure Konstituzioaren likidazioa izenpetu. Gogoratu besterik ez dugu duela 500 urte Amaiurren bizi izandakoa. Independentzia, indarkeriaz kendu digute lehenik, eta, ondoren, administrazio arrotzetatik dependentzia kudeatu gaur arte. Panel informatiboz ondutako 'Habita' erakusketa jarri genuen Oionen eta bisita gidatuak antolatu ziren herritarrentzat. Bertan izan ziren Errioxako IKA euskaltegiok ere, ezkutatu diguten historiaren kontakizuna ezagutzeko. Beharbada, datorren urtean ere antolatuko dugu erakusketa, bisitarekin.

Beñi Agirre, 2022





Aurreko batean, maiatzaren 18an, sareetan eta komunikabideetan ikusi eta irakurri ahal izan genuen Espainiako Gobernuako Nekazaritza Ministerioak “Arabako Mahastiak” Jatorrizko Izendapen (edo Deitura) berria sartzeko eskaera helarazi ziola Europako Batzordeari. Sei urte luze pasa ondoren, azkenean, eskaera hau Europara iritsi da.

Asko hitz egin da honen inguruan, arlo desberdinetako jendeak eman du bere iritzia (kontrakoa gehienek): politikariek, Euskadikoek eta Espainiako estatukoek; enpresariek; baita Arabako Errioxa ezagutzen ez dutenek ere, eta are gutxiago upategi txiki familiarren egoera zein den. Denek Errioxako babesetik ateratzea erokeria zela esaten zuten, askok politikarekin lotzen zuten, Errioxa zatitu nahi zutela eta halakoak. “Erokeria” hau Arabako Errioxako upategi familiar multzo baten proiektu berri bat da, eskualdearen nortasuna, urteetan zehar iraun duen izateko eta egiteko modu bat, kultura, paisaia eta bizimodu bat mantentzeko proiektu berria. Desagertzear dagoen hau guztia mantendu nahi dute, beren biziraupena jokoan baitago; bestela, agroindustriak irentsiko ditu, eta haren mendekoak izango dira, haientzat lan egin beharra izanik.

Jatorri Deitura (DO) marka erregistratu bat da, beren ekoizpena marka komun horren pean merkaturatu nahi duten pertsona batzuen artean adostua (hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez dituzten izen bat eta joko-arau batzuk asmatzea bezain erraza), uste baitute gainprezio bat emango diela beren antzeko produktuak egiten dituzten lehiakide hurbilen gainean.

Orain dela 97 bat urte (1925ean) Arabako Errioxako mahastizainek (duela 400 urtetik eskualde bat eta ardo bat identifikatu ditu izen horrek) Errioxako Jatorri Izendapena sortzea erabaki zuten Logroño (gaur egun La Rioja erkidegoa) eta Nafarroako bizilagunekin. Gaur egun Errioxako Jatorri deituraren sortzaile haien birbiloba gutxi batzuek Errioxa utzi nahi dute eta izendapen berri bat (Arabako Mahastiak) osatu nahi dute beren lurrekin. Arabako Errioxa izena ezin baitute erabili Errioxa Jatorri Izendapen berak erregistratua duelako. Zergatik daude prest

Txiki-txaka 2022 / 30. urteurrena

nekazari eta ardogile hauek beren aiton-amonek eta gurasoek sortu eta prestigiatu zuten Errioxa jatorriaren aterki babeslea galtzeko, 400 urtez maitatu duten Arabako Errioxako izena ere kenduko lieketela jakinda ere?

Arabako Errioxako egungo arazoak Kontseilu Arautzailean sortzen dira. Erakunde horretako goek hamarkadaren amaieratik ez du Arabako osagaia onartzen, bereak ez diren eskumenak berenganatzen ditu, Arabako Errioxa apelazioa erabiltzea zailtzen ditu; horrenbestez, ezin du inork beretzat erabili, Arabako mahastizainek hamabi belaunaldiz egin zuten bezala. Arrazoi asko daude Errioxako Jatorri Izendapen (JD) kalifikatuaren kritikoa izateko. Zalantzan jar daiteke Errioxa esaten diogun eremu zabal honetako mahastiek ba ote duten zerbait amankomunean; izan ere, Eskuernagan, Haron eta Alcanadren oso lur eta klima ezberdinak daude, eta punta bateko eta besteko ardoek jatorri deituraren etiketa bera izango dute. Horrek eragiten duena da upategi handietako jabeek Errioxako leku guztietako mahastizainei mahatsa erosteko aukera izatea ekoiztu ahal izateko, baina prezioa dirua jartzen duenak erabakitzen du, hots, mahatsa, gehienetan, preziorik gabe saltzen da: *“Eta zuk saldu nahi ez badidazu, beste batek salduko dit”*.



Upategi txiki askok ardoa egiteari utzi diote (70-80ko hamarkadan ardoa egiten zuten erdiek). Ordutik gaur arte asko aldatu dira gauzak. Garai hartan erraza zen ardoa saltzea, garrafoietan eta mugitu gabe, jendea etortzen baitzen erostera. Gaur egun komertzializatzea beste kontu bat da: ingelesa jakin behar duzu, eta enologiaz jakiteaz gain, marketinaz ere jakin behar duzu. Aldaketa handia gertatu da, eta zenbaitendako oso zaila izan da egokitzea. Beste batzuek lurra saldu dute; mahasti osoak saldu dituzte: mahatsa ez dute ongi ordaintzen, baina lurrarengatik izugarritzko dirutza ordaintzen ari dira. Hemengo lur asko orain, enpresari handienek dira, hemen bizi ez direnenak, eta hemen lan egiten ez dutenenak ere bai, baina Errioxako marka dute upategia hemen dutelako (iritsi diren parakaidistak). Eta ezinezkoa da gurpil honetatik ateratzea Errioxako JD kalifikatuaren baitan. Erabakiak hartzeko salmenta bolumenaren arabera banatzen dira; beraz, ardogile txikiek ez dute inolako aldaketarako gaitasunik, eta hartzen diren erabaki guztiak upategi handien eta aberatsenen aldekoak dira.

Upategi txiki multzo “ero” horrek eskualdeko mikroklima, lur berezia, (hemengo ardoari ere ezaugarri bereziak ematen dizkiona) mahasti txikiak eta aldapatsuak, eskulana... nabarmendu nahi dituzte, beraiek erabaki nola lan egin eta nola kudeatu beren lurak eta upategiak. Errioxa JD handia da, eta zati bakoitzak berezko ezaugarriak ditu, ez besteak baino

Tfiki-ffaka 2022 / 30. urteurrena

hobeak edo okerragoak, baina desberdinak. Errioxako Kontseilu Arautzaileak ez dituela ordezkatzen uste dute, eta ez daude eroso bere baitan. Arabako Errioxako upategi txikiak desagertzen ari dira, bizimodu bat desagertzen ari da, eta horixe da, hain zuzen ere, ekidin nahi dutena.

Esan bezala, 6 urte luze igaro dira **ABRAk** (bere asanbladak hala onartuta) **“Arabako Mahastiak”** izendapen berria onartzeko ebazpena aurkeztu zuenetik. Administrazioa maila guztietan (Euskadi, Espainia, Europa) arduratzen da espedientea jende aurrean jartzeaz, kaltetuak izan daitezkeenek beharreko baliabideak jar ditzaten. Errioxako Kontseilu Arautzaileak helegiteak jarri ditu (bata bestearen atzean). EAJk ere (Instituzioetan dagoen alderdia) ez du bidea erraztu, baina Euskal Erkidegoko Justizia Auzitegiak aldeko ebazpena eman zuen eta Espainiara bidali zuen. Bertan hilabete batzuk eman ondoren (epe guztiak agortu arte), azkenean, espedientea Europako Batzordera bidali da, eta bertan talde tekniko batek dena zuzen dagoen erabakiko du (3 hilabeteko epean gehienez). Bitartean **“Arabako Mahastiak”** JD bere ibilbidea egiten hasi ahal da.

Amennnnn!



2021eko abenduaren hasieran, Korrikak 22. edizioko mapa argitaratu zuenean haserrea eta etsipena zabaldu ziren Vianako eta Arabako Errioxako euskaltzaleon artean; izan ere, 22. edizioak ez zuen gure zonaldea zapalduko.



Ez da lehen aldia hemendik pasatzen ez dena, baina euskararen aldarrikapenean pandemiak utzitako hutsuneari aurre egiteko aukera polita zirudien Korrikak. Aurreko urtean “Kutxabira” izan genuen Vianan eta Arabako Errioxako zenbait herritan, eta nolabait euskaltzaleon sarea aktibatu zen, baina egitasmo berria izan zen, eta ez zuen nahi genukeen oihartzuna izan. Korrikak bestelako zabalkundea du, eta pena handia zen gure herrietatik ez igarotzea. Egoera horren aurrean, beste batzuetan bezala, Ttiki-ttakak bilera berezi bat burutzea erabaki zuen, gure zonaldeko herri guztietako euskaltzaleei deituta.

Horrela bada, otsailaren hasieran Biasteriko Kuadrillan biltzeko deia egin eta zenbait erabaki jarri ziren mahai gainean:

ezer ez egin; korrikarik egin ez, baina kultur ekintzaren bat antolatu; herrietan korrika txikiak antolatu; herri bakar batean elkartu guztiok, eta han egin korrika... Azkenean, erabakitakoa 2013an eta 2017an erabakitako bera izan zen: **Vianako eta Arabako Errioxako Korrika** gauzatuko genuen.

Erabakiaren arrazoia garbi zegoen: eskualde honetan ere ezinbesteko ditugu Korrikak helburu dituen euskararen aldeko kontzientzia piztea eta helduen euskalduntzea sustatzea. Aipatzekoa da, Korrika ofiziala pasatu gabeko aurreko bi edizio haietan ez bezala, Vianako eta Arabako Errioxako Korrika antolatzeke, Korrika ofizialaren babes eta laguntza izan dugula, eta, hala, kilometroak korritzeko erabili diren petoak, kartelak eta abarrak Korrika 22. edizioakoak izan dira.

Lehen bilera hartan bertan ezarri ziren Vianako eta Arabako Errioxako Korrikaren helburuak: parte hartze zabala izatea, festa alaia, ahalik eta erakunde eta elkarte gehien biltzea.. Izan ere, bazen kalean festa giroan elkartzeko garaia. Egun handiaren data ere aukeratu zen: apirilaren 9a.

Bi zutabe edo adar izango zituela ere erabaki zen eta biak Biasterin elkartuko zirela: bata, Bastidatik irtengo zen: Bastida, Mañueta, Eskuernaga, Samaniego, Leza, Paganos, Nabaridas,

Tfiki-ffaka 2022 / 30. urteurrena

Zieko, Lapuebla de Labarca eta Biasteri. Bestea, Vianatik irtengo zen: Viana, Moreta, Labraza, Gorrebusto, Oion, Iekora, Benasperi, Lantziego, Kripan, Bilar eta Biasteri. Bi zutabeek bat egingo zuten Biasterin, eta jai bikaina antolatuko genuen: txosna, umeentzako jolasak, kontzertuak...

Handik aurrerako bileretan hamaika kontu zehaztu eta ekimen prestatu ziren. Herri askotan Korrika berotzeko ekintzak: pankarta-egiteak, ipuin-kontalaria, elektro-txaranga, korrika txikiak ikastetxe gehienetan...

Normala den bezala, horrelako ekimen batek lanak eman zituen dena prestatzeko: kilometro bakoitza nork korritu, kilometro bakoitza nork markatu, bi zutabeen aurretik joango ziren furgonetak, horietako megafoniak, esatari lanak egingo zituztenak aukeratu, eguneko bideoa nork egin, nola, txosnako txandak...

Baina lanak izan zuen saria, eta apirilaren 9an egun ahaztezina bizi izan genuen Vianan eta Arabako Errioxan, **Mertxe Gandariasek** eginiko lekuko ederrak eskuz esku zebiltzalarik. Goizetik hasi eta gaueko ordu txikiak arte parte-hartze itzela benetan!

Herri guztietan parte-hartze polita izan zuen Korrikak, eta Biasteriko arratsaldeko ekintzek eta gaueko kontzertuek ere horixe izan zuten: jendetza.

Biasterira 17:30ak inguruan iritsi zen Korrika, eta herrian azken biratxo jendetsua egin ondoren, **Unai Bengoetxea** Txandriotarraren bertsoek eman zioten hasiera festari. Ondoren, egunerako propio prestatutako mezua irakurri zuten:

Pandemia zela eta, hainbat ekintza bertan behera gelditu ostean, Euskal Herria osoa poztu zen 22. Korrika abian zela irakurrita. Hogeita bigarrena, pilota-partidak irabazteko egin beharreko tantoa. Viana eta Arabako Errioxa, ordea, partidatik kanpo geunden. Ez! Ezin ginen kanpo geratu! Partida irabazteko jokatu behar den 22. tantoa guk ere jokatu nahi genuen. Eta halaxe, 22. Korrikarekin elkarlanean, eskualde honetako herritar, udal, ikastetxe, kirol-elkarte, aisialdi-elkarte, euskaltegi, dantza-talde, enpresa, bodega, denda, taberna eta abarrek Vianako eta Arabako Errioxako Korrika gauzatu dugu. "Hitz Ekin" dio Korrikaren leloak, hau da, "hitzekin" eta "ekinarekin". Herritarren ekinari esker lortu da eskualde honetan ia euskaldunik ez egotetik oraingo ezagutza kopuruetara iristea, baina argi dago ez dela nahikoa: "ekinean" jarraitu behar dugu "hitzak" gure mingainetara iritsi daitezen, "hitzekin", hitz eginez, euskara erabiliz lortuko baitugu euskarak irautea, euskararen etorkizuna bermatzea. Hankekin "ekinez" iritsi gara gaur Biasterira, korrika; "hitzekin" bete behar ditugu orain gure ahoak, baina Korrikak badu berarekin euskara "hitz eta ekin" posible egiten dituen sentimendua: "Gogoa". Lekukoa eskutik eskura pasatuz, euskara bihotzean dugula erakutsi dugu Vianan eta Arabako Errioxan. Bai, gogoa pizteko balio du Korrikak, eta GOGOIA, EKINA eta HITZEKIN lortuko dugu gure eskualdearen geroa euskalduna izatea. Gora Viana eta Arabako Errioxa euskaldunak!

Tiki-taka 2022 / 30. urteurrena

Jaiari jarraipena emateko, haurrentzako antolatutako eskulan-tailerrak eta herri kirol parte-hartzaileak hurrez gainezka izan ziren. Horma batean ondorengo mezua ere margotu zuten: “Lekukoa eskuz esku, euskara ahoz aho”. Giro politean aritu ziren *Irule* taldekoak ere trikiti-poteoan. Eta amaitzeko kontzertu jendetsuak: **Dupla, Eh, Mertxe!, Azken Hatsa** eta **Astoratuak** taldeekin.

Egun ahaztezina Viana eta Arabako Errioxako herrietan! Jarraian dagoen estekan **Lander Etxedonak** eta **Uxue Olabarriak** sorturiko bideoa (dagoeneko 1.194 ikustaldi ditu!) eguneko irudiekin: <https://www.youtube.com/watch?v=yKo6EQQJHS4>

Den-dena ez zen ongi atera, jakina: Bastidatik ateratako zutabea girotzeko zerabilten megafonia ordu erdirako hondatu zen; herri askotara Korrika aurreikusitako ordua baino lehenago iritsi zen (hau da, hau marka!), eta herrietan “denbora egiten” (musika jarri eta dantzan) aritu behar izan zuten. Beti dago zer hobetua, eta hurrengorako aintzat hartzeko puntuak dira horiek.

Dirua lortzea helburu jarri ez bazen ere, erabaki zen, ateratzekotan, euskaltegiko ikasleen matrikulak hurrengo ikasturtean ez igotzeko erabiliko zela, eta, bai lortu da! 2022-2023ko ikasturtean gure zonaldean euskara ikasi nahi duenak ez du matrikularen prezioa igota aurkituko.

Orain azken lana geratzen da, hau da, Korrika ofizialeko arduradunekin bildu eta balorazioa egitea eta hemendik aurrerako edizioetan zer gertatuko den zehaztea. Urtero izango ahal dugu Korrika hemen ere!



LANDER ETXEDONA Gipuzkoatik Arabako Errioxara umetan iritsi zen gaztea dugu. Urteak eman ditu kanpoan, eta orain bueltatu egin da. Ikus entzunezkoetan egiten du lan, kamera, errealizadore, argazki zuzendari... Proiektu ugari hartu du parte; haien artean telesailak, dokumentalak, laburmetraiak eta bideoklipak grabatu ditu, eta galdera batzuk egin dizkiogu askorentzat ikusezina den hizkuntzaren eta askotan ikusezina den lanaren inguruan mintzatzeko.



Nolako zen euskararen egoera Arabako Errioxara iritsi zinenean? Presentziarik ba al zuen? Lagunen artean hitz egiten al zenuten? LH 5. mailan iritsi ginen Oiongo San Bizente Ikastolara. Lehenbiziko egun horietan ikasle batek “*Begira ze sola egiten duen hoy, andereño!*” esan zuen eta flipatu egin genuen. Egia da momentu horretan ez nuela hausnartzen egoeraren inguruan, baina, nire ustez, praktikotasunean erabiltzen zen, ikastola inguruan behintzat, azpi euskalki famatuan (“*euskañolean*”) bazen ere.

Aurten Vianako eta Arabako Errioxako Korrika ospatu dugu, eta eguneko bideo aparta eta hunkigarria utzi diguzu. Euskara izan al zen protagonista? Nolako izan zen eguna zuretzat?

Urte batzuk daramatzat Korrika alternatiboetan inplikaturatuta. Euskal Herriko periferia deritzon honetan horrelako

ekimen batek duen garrantzia aintzat hartuta, ekonomikoki errentagarria ateratzen ez delako hemendik ez pasatzeak amorrua ematen dit. Oso garrantzitsua da horri buelta ematea.

Bideoaren inguruan mezu oso onak jaso ditut; esaterako, Korrika ofizialaren parekoa edota batzuek gurea hobea dela esan didate. Horiek entzundakoan helburua lortu dela pentsatzen dut. Horrelako ekimenek normalean ez dute ikus-entzunezko euskarririk, eta oraingoan whatsapp-eko irudietan geratzen harago iritsi garela ikusi da. Sare sozialetan jende askok ekitaldiaren inguruan galdetu dit, kanpoko jendeak, zergatik ez zen ofiziala pasatzen...

Beste gai bati helduta, euskararen presentzia oso handia izan zen. Euskal eragileek antolatutako ekintza izanik ezin zen besterik gertatu. Zonaldeko euskaldunak eta euskalduntze prozesuan daudenak euskaraz egiten saiatu ziren. Hori asko baloratzen dut. Oso potentea da nik kanpoan urte batzuk eman ondoren, bueltatu eta txikitako lagunak seme-alabekin korrika egiten ikustea euskaraz egiten eta euskerarengatik.

Zure lanbideak bidaiatzeko aukera edo beharra sortzen du. Euskal Herrian eta hemendik kanpo egiten duzu lan. Lantaldeak desberdinak dira, garrantzitsua al da taldeko lana?

Lantaldea gurean ezinbestekoa da. Bakarka lan asko egin dezakezu, baina taldean lana egitea beharrezkoa da. Ez bakarrik emaitza hobea izan daitekeelako, baizik eta gustura egiten duzulako lan, sortzen den sinergia, sorkuntza prozesua taldekoa izatea...

Ibili izan naiz produkzio handiren batean, baina nik, gehienetan, talde txikietan egiten dut lan. Dokumentaletan, adibidez, kamera ni egoten naiz, batzuetan bigarren bat, spinu arduraduna... Guztira 4-6ko taldeak izaten dira; zentzu horretan ekoizpen nahiko independenteak direla esan daiteke.



Hizkuntzak ere desberdinak, batzuetan euskaraz, beste batzuetan gaztelaniaz...

Proiektuaren arabera euskaraz edo gaztelaniaz egiten dut lan, gaiaren arabera ere euskaldun gehiago edo gutxiago egoten baikara. Adibidez, orain Donostian aurkeztuko dugun dokumentalean, tortura modernoaren inguruan, denak euskaldunak gara.

Kritika txiki bat botako dut. Nire lanaldiaren ehuneko altu batean *Euskal Telebistako* saioetan egiten dut lan. *Ur handitan* programan, adibidez, denak euskaldunak ginen, eta giroa ere bikaina zen. Norbaiti elkarrizketa bat euskaraz egin behar diozunean langileek euskaraz jakitea da

logikoena. Baina gertatu zait errealizadore bat ETBko euskal programa bat zuzentzen egotea euskara jakin gabe. Harrigarria, ezta? Nire ustez kontraesan handia da hori.

Zeintzuk dira zure hurrengo proiektuak?

Laburbilduz: *Michelin gida*-rako proiektu batean egingo dut lan, *Go!azen* telesailan ere lan egingo dut, *Dani García* sukaldariarekin publiziterako grabazio batzuk egingo ditut, laburmetrai bat...

Lanbide hau ez da batere egonkorra. Proiektuak egunez egun ateratzen dira. Gainera, toka daiteke garai batean lan asko pilatuta izatea eta ondoren denbora luzez proiekturik ez egotea. Nik momentuz ez dut geldialdi luzerik izan. Proiektu desberdinetan egiten dut lan, publizitatea, dokumentalak, telesailak, laburmetriak, bideoklipak... eta lan desberdinak egiteko aukera izateak konstantzia bat ematen dit.

Musikak garrantzia handia du zure bizitzan. Musikaria zara eta bideoklipak, dokumentalak... egin dituzu. Haien artean ETS-rena. Kalitatezko musika eszena al dugu euskaraz?

Nire ustez ska tronpeteroaren etapa gogor hori pasa dugu. Taldeak orain beste erreferentzia batzuk hartzen ari dira, eta eszena nahiko anitza dugula esango nuke. Kalitatezkoa? Oso subjektiboa da hori. *Dut* bezalako talderik ez dago. *Kuraia* bezalako talderik ez dago. Baina nire ustez badaude talde oso onak, *Vulk*, esaterako. Arabako Errioxan ere *ETS* bezalako talde bat izaten ari den garapena ikustea, poperantz esan dezakegu, ez zena kasik onartzen: uste dut apustu oso ausarta dela eta baloratzekoa.

Pelikula bat: *Incendies*
Musika talde bat: Euskal Herrikoa *Dut*, atzerrikoa *Queens of the Stone Age*.
Liburu bat: *Cosas que los nietos deberían saber*.
Gomendatu zure proiektu bat: Vianako eta Arabako Errioxako Korrikako bideoa. Kar, kar...-

denborapasak

Kaixo, lagunok!

Badakigu atal honetan hizki-zopak, txisteak, asmakizunak eta abar ikusten ohituta zaudetela, baina oraingoan Interneten jolasteko dauden aukeren berri eman nahi dizuegu esteka hauen bitartez. Tira, jo helbideetara, eta ekin jolasteari. Bejondeizuela!

JoLASTEKO eta ONDO PASATZEKO

<https://wordle.talaios.coop/>

<https://www.berria.eus/berbaxerka/>

<https://jolasak.eu/>

<https://www.jolasak.eu/hitzeman.html#jokoa>

<https://www.jokoak.com/>

<https://hitziki.com/>

<https://gozatusareaneuskaraz.eus/eu/aisialdia>

<https://sites.google.com/site/jolastuzikasi/home>



Tiki-taka 2022 / 30. urteurrena

GURE EUSKARA LANTZEKO eta HOBETZEKO

<https://bloga.ikaeuskaltegiak.eus/tribial-ika/>

<https://view.genial.ly/6021000e59ad520d1f8e451b/game-ikako-hildakoen-jolasa>

<https://deklinabidea.ikaeuskaltegiak.eus/>

<https://ortografia.ikaeuskaltegiak.eus/>

<https://bloga.ikaeuskaltegiak.eus/ariketa-interaktiboak/>

<https://www.aditzak.eus/>



non gogoa, han zangoa

EUSKARAZKO ASTEBORJA VIANA

Maiatzak 13
10:15-16:00 Oren.
Lentzaga, Laguerre, Bostida eta Vianako ikasleentzako ekintzak.

Maiatzak 14
10:30an Calaxeta herriko kalean pasatzen
11:30 Puzgarria
12:30 Yoga herriko ikasleentzako
14:00 Euzko eta Txaluparra Lasterre
17:00 Puzgarria
18:00 Ipar Bostida
20:00 Kulturako Lanburuak
22:00 Zetxezuzkia

TTIKI-TTAKA Oinezkoak ezin diren afektuak



Laburrbira

Euskarazko film laburren XIX. zirkuitua - 2022
Otsailaren 25etik martxoaren 27ra

Tfiki-ffaka 2022 / 30. urteurrena



Tfiki-ffaka 2022 / 30. urteurrena





Vianako eta Arabako Erriotsako **HITZERKIA**

korrika

AMAIERAKO FESTA

BIASTERIN

- 17:30 Korrika iritsi (Plaza berria) eta herriko kilometroa
- 17:45 Manifestuaren irakurketa eta bertsoak Txandriotarrekin (Frontol zaharra)
- 18:00 Herri kirolak (San Juan plazatxoan) Haurrentzako tailerra: Korrikaren murala
- 19:00 Trikipotea Irule taldearekin.
- 20:00 Kontzertuak (Frontol zaharra)

dupla **ASTORATIAK**
EMERTXU

Auzor Erriotsako eta Vianako Korrikaren 30. urteurrena



tiki
taka



euskaldunon elkarte

Bazkide izan nahi baduzu, behealdeko fitxa bete ezazu eta bidali gure helbidera.

*Kuotari dagokionez, 20 euro dira urtean eta gazteentzat borondatea. Honen truke bidaliko dizugu aldizkaria, informazioa eta ekintza eta bileren berri. **Egin zaitez bazkide!***

Deiturak _____ Izena _____

Jaioteguna _____ Helbidea _____

Herria _____ Pta. Kodea _____ Tfnoa _____

Banku-Aurrezki kutxa _____ Sukurtsala _____

KK edo libreta zkia _____

Data _____

Sinadura

euskaldunon elkarte